



Ormaiztegi
Udala

ORMAIZTEGIKO LUDOTEKA TXIKIA (TXIKI-TXOKOA)

Egitasmoa herriko hainbat gurasok udalari duela bi urte inguru egindako eskaerari erantzuna eman asmoz jarriko da martxan. Oso lagungarri izan da guraso batek sortu eta udalari bideratutako txosten proposamena orain aurkeztera gatozkizuen honetara iristeko.

SARRERA

Gizarte etxeko beheko solairuan kokatutako Gizarte Aretoa (Gaztelekua) espazioa erabiltzeko aukera izango dute herriko txikienek, 0 eta 6 urte bitarteko haurrek, beti ere, adinez nagusiko pertsona heldu baten ardurapean. Udazken, negu eta udaberriko egun hotz eta euritsuetan erabiltzeko gune estalia izango dute honela, ahal den neurrian beraien beharretara egokitua egongo dena, eta, egitasmoa bidean aurrera doanean sortzen doazen beharrak asebetetzeko konpromisoa hartuta.

Aipatutako aretoa, ordu jakin batzuetan ireki eta erabilgarri izango da egitasmo honetarako. Ekimen hau bideragarri izateko jarraian zerrendatu diren hainbat arau-ardura bete beharko dira.

Espazioa erabili nahi duten familiek liburutegian eman beharko dute izena (Guraso bakoitzaren izen-abizenak eta telefono zenbakia emanaz). Izen eman aurretik, honako txosten hau entregatuko zaio guraso bakoitzari, lasai irakur eta sinatu dezan, nolabait bertan adierazitakoarekin ados dagoela adierazi eta egitasmoa modu egokian garatzeko konpromisoa azaltzeko. Partaide horiek zerbitzuaren inguruko ohar edota hobekuntza proposamenak udalari jakinarazteko Ormaiztegi App-eko *Idatzi Udalari* formulariotik egin beharko dute.

ERABILERA ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera, 16:00etatik 18:00etara.

Larunbat igande eta jai-egunetan 11:00etatik-14:00etara.

Oharra: aste santu, udara eta gabonetako opor garaian beharrezko egokitzapenak egingo dira ordutegian, beti ere gizarte etxeak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak modu koordinatuan mantendu helburuz.

ERAIKINA

Eraikin honek, beheko solairuan, areto nagusia eta gizarte aretoaz (gaztelekua, txiki-txokoa) gain, taberna, erretiratuen elkartze gela eta bi komun egokitu ditu. Lehenengo solairuan, aldiz, liburutegia, jubilatuen bulegoa eta erretiratuentzat ileapaindegi-podologoaren lokaltxoa beste bi komunekin osatzen da. Bi solairu hauek, eskailera nahiz igogailuarekin konektatuta daude.

SARBIDEA

Behin izen-ematea liburutegian eginda. Une horretatik aurrera txiki-txokora edo ludoteka txikira sartzeko giltza eskatu beharko da bai liburutegian bai edo tabernan. Honela, espazioa erabiltzen duen arduradun orok txiki-txokoa erabiltzen den aldiro bertako paretan zintzilik aurkituko duen taulan adieraziko ditu bere izen-abizenak, eguna eta ordua. Helburua da une-oro idatziz jasotzea



Ormaiztegui
Udala

jendearen joan-etorriak, gerta litezkeen egoera deseroso desberdinei irtenbidea aurkitu asmoz. Espazioa itxi baina 5minutu lehenago, giltza itzuli beharko da hartu den leku berean.

ERABILTZAILAK

Ekimen hau txikiengan zentratzen da, hauek baitira, bati-bat, herrian egun euritsuetan "salduta" geratzen direnak. Ludoteka txikiko haurren adina 0 urtetik 6 urte bitartekoa da. Hauek, hainbat taldetan sailkatu daitezke, beraien garapen fisiko, motrizean eta adimen, heldutasunean erreparatuz, baita beraien segurtasun espazioan ere. Sailkapena, 0-3 urte, 4-6 urte. Hauek denak adin txikikoak izanik, adinez nagusia den pertsona batez lagunduta beharko dute egon, une oro. 6 urtetik gorakoek gaztetxoek ludoteka izango dute, beraz ezin dute txikien gunean sartu. Gehienez ere, 20 pertsona egon ahalko dira aldi berean txiki txokoan, eta, unean uneko helduak, gehienera 4 haur eduki ahal izango ditu bere ardurapean. Pertsona kopuru maximoa zehaztu da segurtasuna eta erabiltzaileen erosotasuna bermatzeko.

ESPAZIOAREN KUDEAKETA – JOSTAILUAK

Areto honek metro karratu jakin batzuk ditu eta bertan adin ezberdinetako haur eta gurasoak elkarbizi behar dute. Momentuz, espazioan hainbat alfonbra egokitu dira eta armairu baxu bat erreserbatu da txiki-txokoko erabiltzaileen jolasak eta materiala gordetzeko.

Ekimen hau berria izanik eta probaldian egonik, udalak, momentuz, ez du aparteko inbertsiorik aurreikusi. Gurasoei proposatuko zaie etxean dagoeneko erabiltzen ez dituzten jolasak (gehiegi ere ez) bertara eraman eta horiek erabiltzea lehen probaldi honetan. Udalak bere aldetik papera, margoak eta antzerakoak jarriko ditu erabiltzaileen eskura.

Areto hau, kristalera handidun leku itxia izanik, non beste haur eta ekimen batzuekin bizikidetzatokia den, pilota edo beste edozein jostailu jaurti, fuerte pasa edo abar egitea erabat debekatua dago, hala eta korrika edo bultzaka ibiltzea ere. Beraz, aurkitu beharreko jokoak lasaiak eta sosegatuak izan behar dute, mahai jokoak edo panpina soil batzuekin garatutako sinbolismo jokoak, esaterako. Hauek denak ere, erraz jaso daitezkeenak eta hausteko edo galtzeko zailak izatea litzateke egokiena.

TXUKUNTASUNA ETA GARBITASUNA

Lokal honek gaur egun badu garbiketa zerbitzua; kontuak-kontu, erabiltzailea izan behar da txukun mantentzearen arduraduna. Honetarako hainbat jarraibide luzatzen dira:

-Erabiltzen diren jolas edota bestelako materialak jasota geratu behar dute arduradun bakoitzak alde egiten duen neurrian;

-Helduek areto barruan ezin dute jan edota edan; baimendua dago txikienei merienda ematea eta gurasoak arduratuko dira dena ondo jasotzeaz.

-Txikienen karritoentzat espazio bat egokitu da ludoteka txikiaren (txiki-txokoaren) sarreran

-Areto barruan hainbat zakarrontzi izango dira eskuragarri, pala eta erratzarekin batera.

ARDURA

Erabiltzaile bakoitzaren ardura, heldu zein haurrena ezinbestekoa da; egonaldia egoki eta lasaia izatea, axolagabekeriarik egin gabe eta elkarbizitza jasagarri baterako txukuntasun eta garbitasun argibideak errespetatzea.

Nork arduratu behar du gauzak atera eta dena jasotzeaz, eta dena txukun urteaz?

Ateratzeko orduan, ludoteka txikiaren itxiera ordua baino lehen joan behar badu, ardura beste guraso bati igaro beharko dio. Beste inork ardura hori hartu nahi izango ez badu, ludoteka txikia itxiko du alde egitera doan helduak, behin materiala jasota.

Aurrez esan bezala, pertsona kopuru maximo bat zehaztu da (gehienez ere, 20 pertsona egon ahalko dira aldi berean txiki txokoan, eta, unean uneko helduak, gehienera 4 haur eduki ahal izango ditu bere



Ormaiztegui
Udala

ardurapean) zerbitzuaren segurtasun eta erabiltzaileen erosotasuna bermatzeko. Honela, aretora sartu aurretik erabiltzaile bakoitzak, ziurtatu beharko du ea tokirik baduen edo ez.

Areto hau elkarbizitzarako gune bat izanik, eta, bertako erabiltzaile nagusienak haurrak direla kontuan izanda, gurasoen presentzia eta inplikazioa beharrezkoa. Hau da, areto honen eginkizuna ez da haurrak, bereziki nagusienak, bertan uztea besteak zain ditzaten, baizik eta eguraldi txar edo kaxkarra dagoenetan aterpe atsegina bat izatea, hitzartutako arduradun baten begiradapean.

KOMUNAK

Unean uneko arduradunak espazioko giltza eskura izango duenez, beheko komunak erabiltzeko aukera izango dute ludoteka txikiko erabiltzaileek. Hauek irisgarriak dira eta haur txikiei pardelak aldatzeko mahaia ere badute.

ARAUAK

Jarraian hainbat axolagabekeri aipatuko dira, non hauek aurrera eramateak ludoteka txikiko sarrera galarazi edo zuzenean ludoteka txikiaren itxiera ekar dezaketen.

- Haurrak bakarrik, hitzartutako arduradunik gabe urtea.
- Haurrak korrika, pilotarekin, borrokan, builaka edo beste haur edo helduei molestatzen egon eta jarrera hau ez moztea.
- Haurrak meriendatu eta bertako azal, papertxo edo abar lurrera bota edo eroritakoa ez jasotzea.
- Gauzak, jostailuak, paperak, margoak eta abar, beraien lekuetatik atera eta ez jasotzea.
- Aretoko altzari, jostailu edo abarren bat arduragabekeriagatik hautsi, puskatu; heldu edo haur batek min hartu edota beste edozein ohar garrantzitsu Udalari ez jakinaraztea. Kasu hauetan, ahal den neurrian, Ormaiztegi App ko *Idatzi Udalari* formularioa erabiltzea eskatzen da.
- Helduek erretzea edo edonor suarekin ibiltzea.
- Alkohola edatea.
- Animaliak sartzea.
- Komunak jolasteko erabiltzea.
- Euria dagoenean, aterki, karrito edo txaketa bustia edonon uztea, inguruko lurra busti eta labainkor utziz.
- Oinetako zikinekin, lokatza bereziki, aurrera eta atzera ibiltzea.
- Ezin da "merendolarik" antolatu.
- Pertsona kopuru maximoa pasa eta kasurik ez egitea

PROBALDIA

Ludoteka txikia edota txiki-txokoa bezela izendatu den zerbitzua probaldian egongo da martxoaren 27tik uztailaren 21 bitartean eta izendatu berri direnetako edozein edota elkarbizitza, elkarrenganako nahiz herri ondarearekiko errespetua puskatzen duten jarrerak gertatuz gero, zerbitzua etetea ekarriko dute.

Aipatutako probaldia modu egokian igarotzeak zerbitzua datorren ikasturtean berriro martxan jarri eta unean-unean beharrezko diren hobekuntzak nahiz baliabideak bideratzea ekarriko du. Besteak beste, erabiltzaileen sartu-irtenak eta hauen erregistroa erraztuko duten tresna praktikoagoak bideratzea.

Ormaiztegin, 2023ko martxoaren 28an